



Tartaloren abean

TESTU ETA ARGAZIOAK



Mikel Arribalzaga
(Dorreña-Eibar, 1951)

Egunikarla, Berria eta Gara ogunlariek, Pyreneak, Euskal Herria eta Nor aldiaketa eta a Euskadi Irratian mendiardekin zerikusia dute makina bat artikulu eta kolaborazio ogin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibili da.


MENDITXIKI - ARABA BASO SORGINDUA

Gailurrenara igotzeko Egileor herrixka izango dugu abiapuntu. Herriaren sarrean dagoen lurrezko aparkalekuak abiatu eta lur-sailak zeharkatzen dituen pista zabala eta berriz batek hegoalderantz bideratuko gaitu. Kilometro bat bertatik bete eta, ezenetik ateratzen den belarreko xendan barrena abiatuko gara, Fraideen xenda izeneko bidetik hain zuzen ere. Egurrezko zutoin batek erakutsiko digu hartu beharreko norabide zuzena (Larré Eder-Senda de los Frailes testua). Garai batean, bide honen Agurain eta bere ergoienak (Alan-

gua, Arrizala, Egileor eta Opakua) Iturrieta mendilerroarekin lotzen zituen. Duela ehun urte, Aguraingo klaretaren komentuan 80 fraide baino gehiago zeuden eta maiz eraikitzen zuten bide hau. Dirudienez, beraien eguneko lanetako bat paseatzera intxeta omen zen, hortik Fraideen xenda izena.

Hasiera pagadian eta gero pinudian murgiltzean, gorriz eta tanto zuriez margotutako egurrezko makilek erakutsiko digute aukeratu beharreko bide zuzena. Hemen hasten baita "Baso sorgindua"-ren ibilbide berezi eta polita. Pinu biren en-

borretan jarrita dauden "basoko begiek" emango digute ongiotorria eta, maldan gora jarraituz, eskuinera utziko dugu. Lezaoko kobazulora zuzentzen den xenda. Pagadian marratzen den xendan barrena, basoko izakien presentzia konstante bat bihurtuko da. Aguraingo Aitor Gorospe mendizaleak, laupabost urtetan egindako lanaren emaitza da Fraideen bidean, basoaren leku eta txoko desberdinatan kokatuta ikus daitezkeen euskal mitologiazko eta naturaren zenbait elementuren sailuak eta irudiak ibilbide magikoa!



Kuleto faltsuen (*Amanita Muscaria*), irudien presentziak Perla Hueca izeneko lekura eramango gaitu eta honen pasabidea zaintzen duen sorgina ikusiko dugu. Haitzaren paretan fraideek zizelkatutako gurutzeak ikus daitezke. Haitz honen beste aldetik hedatzen den xendatik Ttartallo izaki mitologikoaren ondora eramango gaitu. Hemendik Alanguako mendatera heldu aurretik, Aitorrek sortutako hamaiaka irudi desberdin ikusi ahal izango ditugu: Basajauna, Olentzero, unubialak, azeria, herensugea, belatzak, tximeletak, basoko eta haitz etxeetako izakiak, behi, orkatz eta basurdeen kasketzurak... Umeekin gozatzeko ibilbide zoragarria!

Arbaras iturriaren ondora iristean, maldia leundu egiten da eta, denbora gutxi behar izango dugu pagadia atzean utzi eta mendilerroaren hegira iristeko. Langa igaro eta eskuin aldera joko dugu Larrederreko tontorrera igoz. Mendi hau izañ desberdinez ezagutu ohi da, Achuri, Larredez eta Larreder eder izenez hain zuzen ere. Bertan dauden bi buzoietan agertzen dira izañ horietako bi. Larredez eta Abxuri terminoak, askotan, sinonimotzat hartu ohi dira Achuri izeneko erpin geodesikoa da-

Basoko izakiak



Larredekotontorrenan

goen gailurra izendatzeko. Hala ere, badi-rudi, Abxuri eldialderantz dagoen humengo kota dela. Inguruak duen itxurarengatik, logikoena Larreder izena izatea litzateke, hegoalderantz dauden larre edenak ikus-tea besterik ez baitago. Tontorretil antonimoak diren bi paisaia ikusi ahal izango ditugu; hegoalderantz lur eremua lauak zabaltzen dira, eta iparralderantz, berriz, Alangua hemiaren bertikalean amiltszen diren magalmalkartsuak. Talde bikaina hone-tatik, Gorbeia, Aizkorri, Elgea, Anboto eta Altzaniako mendilerroen ikuspegi oso eta paregabea izango dugu.

Tontorra atzean utzi, erpin geodesikoaren ondoan dagoen alanbrezko hesia gurutzatu eta mendebalderantz joko dugu haritzko mugarririk jarraituz. Gandomean zehar burutuko dugun ibilbide honetan, bigarren mailako tontorrak diren eta inolako seinalerik ez duten Perla Redonda eta Perla del Cura izeneko tontorretil igaroko gara, bertatik dugun ikuspegi panoramiko bikainaz gozatzuz. Alanbrezko beste hesi bat gunutzatu, ehiza-postu baten ondotik pasa eta San Juan mendatera jaitsiko gara. Erdi Aroan, mendate hau mandazain-bideen igarobide garrantzitsua izan zen, eta bertan gunutzea zizelkatuta duen tamaina handiko hilarría dago. Gertu tumulu bat eta, amildegiaaren entzera gerturatzean, burdinazko gurutze bat ikusiko dugu,

mendateari izena ematen dion desagertu-tako emritaren kokapena gogora ekarriz.

Mendatetik iparraldeantz jaisten hasiko gara pagadian zehar marrazten den xenda nabarmen eta erosoa batetik. Jaitsiera azkar baten ondoren, pista zabalera helduko gara eta gertu dagoen Egileor hemira emaz allegatuko gara.

Basajauna

